

ERABAKIA, 2019ko EKAINAREN 28koa, GRADUKO ETA GRADUONDOKO IKASKETEN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA. HORREN BIDEZ, LAGUNTZAK EMATEN DIRA PRESTAKUNTZA BIDEAN DAUDEN UPV/EHUko IKERTZAILEEK ATZERRIKO UNIBERTSITATEETAN EGIN BEHARREKO EGONALDIRAKO ETA ATZERRIKO UNIBERTSITATEETATIK ETORRI ETA PRESTAKUNTZA BIDEAN DAUDEN IKERTZAILEEK UPV/EHUn EGIN BEHARREKO EGONALDIRAKO DOKTOREGO TESIA TUTOREKIDETZAN EGITEKO (2019).

Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak diru laguntzetarako deialdia onartu zuen 2015eko otsailaren 5ean egindako bileran. Horren bidez, laguntzak ematen dira prestakuntza bidean dauden UPV/EHUko ikertzaileek atzerriko unibertsitateetan egin beharreko egonaldirako eta atzerriko unibertsitateetatik etorri eta prestakuntza bidean dauden ikertzaileek UPV/EHUn egin beharreko egonaldirako doktorego tesia tutorekidetzan egiteko. Deialdiak ezarri bezala, deialdi honetako zenbatekoa 60.000 eurokoa da, Graduako eta Graduondoko Ikasketen arloko Errektoreordetzaren kargura. Zenbateko hori aldatu ahal izango da eskatutako laguntzen zenbateko osoa eta dagoen aurrekontua aintzat hartuta.

Unibertsitateko Graduondoko Batzordeak diru laguntzetarako deialdia onartu eta berori argitaratzea erabaki zuen 2019ko otsailaren 22an egindako bileran, prestakuntza bidean dauden UPV/EHUko ikertzaileek atzerriko unibertsitateetan egin beharreko egonaldirako eta atzerriko unibertsitateetatik etorri eta prestakuntza bidean dauden ikertzaileek UPV/EHUn egin beharreko egonaldirako doktorego tesia tutorekidetzan egiteko laguntzetarako deialdia, hain zuzen ere. Deialdi horretan 2019ko apirilaren 17 arte ezarri zen laguntza eskatzeko eskaerak aurkezteko epea.

Graduondoko Batzordeko bi kidek eta Master eta Doktorego Eskolako kide batek osatutako Batzorde Mistoa da eskaerak balioetsi eta txostena Graduondoko Batzordeari bidaliko diona onar dezan.

Aurreko datuak ikusirik, Graduako eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordeak hau

ERABAKI DU:

Lehena.- Behin hautagaiek aurkeztutako merezimenduak balioetsita, onestea ondoren zerrendatzen diren laguntza eskaerak eta horien artean banatzea

laguntzetarako erabakitako aurrekontua. Hauek dira deialdiko oinarrien arabera emandako zenbatekoak:

A MODALITATEA.- Kontraturik ez daukaten doktoregaiei zuzendua:

ZK.	NAN/ PASAPORTEA	EGONALDIA		EMANGO DEN ZENBATEKOA		ZENBATEKOA
		DATAK	HILABETEAR	BIDAIA	EGONALDIA	GUZTIRA
1	AN331053	2019/04/01etik 2019/07/31ra	4	1200,00	3200,00	4400,00

B MODALITATEA.- Kontratudun doktoregaiei zuzendua

ZK.	NAN/PASAPORTEA	EGONALDIA		ZENBATEKOA
		DATAK	HILABETEAR	GUZTIRA
1	Y3294317H	2019/04/01etik 2019/12/01era	8	3111,11
2	AX7455615	2019/02/02tik 2019/07/15era	5 eta 15 egun	2138,88
3	45948696D	2019/02/01etik 2019/06/30era	5	1944,44
4	72179620P	2019/06/01etik 2020/05/31ra	9	3500,00
5	53954194N	2017/07/01etik 2020/07/01era	9	3500,00
6	72546365H	2019/01/01etik 2019/09/30era	9	3500,00

7	AS7171596	2019/01/15etik 2019/09/30era	8 eta 15 egun	3305,55
8	5173227	2019/10/01etik 2020/06/30era	9	3500,00
9	YA8187283	2019/07/01etik 2020/12/15era	9	3500,00

Bigarrena.- Ezestea ondoren aipatzen diren eskaerak:

ZK.	NAN/PASAPORTEA	UKO EGITEKO ARRAZOIA
1	72527957X	1

1.- Laguntza epez kanpo eskatzeagatik

2.- Hitzarmenik ez izateagatik

3.- Eskaera ezestea laguntza beraren onuraduna izateagatik 2016an, deialdiko 10.10 atalaren arabera

Hirugarrena.- Deialdiko 10. oinarriari jarraiki, esleitutako diru laguntza jasotzeko, onuradunek dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte Master eta Doktorego Atalean (Deialdi eta Laguntzen Atala):

- UPV/EHUren eta atzerriko unibertsitatearen arteko tutorekidetza hitzarmen espezifikoa, edo hitzarmen horren onarpena, bai UPV/EHUko Graduondoko Batzordearena eta bai beste unibertsitatean hori egitea dagokion batzordearena (laguntza eskaeran aurkeztu ez bada).
- Zinpeko aitortpena, laguntza jasotzeko bateraezintasunik ez dagoela ziurtatzen duena (2. dokumentua).
- Interesdunaren aitortpena, laguntza eta deialdian xedatutako baldintzak eta betebeharrak onartzen dituela ziurtatzen duena (3. dokumentua).
- Bankuko datuak: diru sarrera egiteko erakundea, sukurtsala eta kontu zenbakia, bai eta BIC/SWIFF zenbakia ere (4. 1 eta 4. 2 dokumentua).
- Laguntzaren ikertzaile onuradunak egonaldia egiten den erakundeko/fakultateko/ikastegiko/institutuko ordezkariari eskatu behar dio ikerketan hasitako data egiaztatzeko (A agiria betez), eta, egonaldia amaitutakoan, egonaldi amaiera egiaztatzeko (B agiria betez).

Laugarrena.- A modalitateko laguntza bi epetan ordainduko da: lehenengoa ikasle onuraduna UPV/EHUra edo atzerriko unibertsitatera heltzean eta bigarrena ikerketan hasi eta hiru hilabetera.

Prestakuntza bidean dauden ikertzaileentzako laguntza osagarria, B modalitatekoa, deialdiko 3. oinarrian aipatutakoa, dena batera ordainduko da.

Bosgarrena.- Era berean, ikasleak egindako jardueri buruzko txosten bat egin behar du doktorego tesiaren zuzendariak (6. dokumentua). Dokumentu hauek deialdiko 6 oinarrian aipatzen den web orrian daude.

Seigarrena.- Laguntza adjudikatuz gero, erabaki honetako deialdiak ezarritako baldintzak eta obligazioak onartu beharko dituzte adjudikaziodunek.

Zazpigarrena.- Onuradunek ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte, kendu egingo zaie emandako diru laguntza.

Erabaki honen aurka, errekurtsio hauek aurkez daitezke:

a) Nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsioa aurkez dakiok UPV/EHUko errektoreari hilabeteko epean, erabakiaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera hasita (urriaren 1eko 39/2015 Legeko 123. artikulua); errekurtsioa jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsioa isiltasun negatiboagatik ezetsi dela ulertuko da.

b) Bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daiteke administrazio auzietarako Bilboko epaitegietan bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita, abenduaren 21eko Lege Organikoko 6.4. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 1998ko uztailaren 13ko Legeko 8.3. eta 14.1. artikuluetan (lehenengo irizpidean) adierazitakoarekin bat.

Leioan, 2019ko ekainaren 28an

GRADUOKO ETA GRADUONDOKO IKASKETEN ARLOKO ERREKTOREORDEA
Eskumenak eskudordetuta (2017/01/25eko Erabakia) (2017/02/3ko EHAA)



Maria Araceli Garín Martín

